

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Amarika Aretoa 2025 plataformako ordezkariak Amarika Aretoa mantentzeko araugintzako herri-ekimena aurkeztu dute

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, 2025eko otsailaren 18an egindakoan, erabaki hau hartu du 12/B/03/0001932 zenbakiko espedientearen inguruan:

LEHENENGOA. José Vicente Cos Villegas, María Milagros Ángulo San Millán, M. Carmen Montenegro Miguelez eta Aitor Salazar Calleja, Amarika aretoa mantentzeko aurkeztutako araugintzako herri-ekimena izapidetzeko onartzea, Arabako Batzar Nagusien aurrean araugintzarako herri ekimena arautzen duen uztailaren 4ko 15/1986 Foru Arauaren 6.1 artikulua babesean.

BIGARRENA. Erabaki hau Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinaraztea, araugintzarako herri ekimena arautzen duen uztailaren 4ko 15/1986 Foru Arauaren 9. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako prozedura abiarazi dadin, eta organo horrek sinadura-bilketaren zuzentasuna berma eta kontrola dezan.

HIRUGARRENA. Estatistikako Institutu Nazionalari (Arabako ordezkariari) Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen hautesle-eroldari buruzko ziurtagiria eskatzea, behin betiko zehazteko zenbat sinadura behar diren araugintzako herri-ekimena balio osoz aurkezteko. Azaroaren 28ko 1210/2024 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, behin-behineko kopuru gisa, hautesleen 6.783 sinadura beharko dira.

LAUGARRENA. Erabaki hau ekimenaren batzorde sustatzaileari jakinaraztea eta ALHAO argitaraztea. Jakinarazten da, era berean, sinadurak biltzeko fasea amaituko dela Hauteskunde Batzordeari lortutako sinadurak jasotzen dituzten pleguak entregatzean, 4 hilabeteko epean, onartzeko erabaki hau jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA. Jakinarazi batzarkide-taldeei eta Arabako Foru Aldundiari.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 18a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA